

# RIKARDO HURBILETIK

---

JOAN MARI TORREALDAI

## AURKIBIDEA

<b>ALFABETATZEAREN HASIERAN, RIKARDO</b> .....	23
<b>Alfabetatzea.</b> <i>Joan Mari Torrealdai/Rikardo Arregi</i> .....	23
<b>RIKARDOREN GUTUNAK</b> .....	27
<b>Martin Ugalderi</b> .....	28
Andoain, 1963ko azaroaren 5ean. ....	28
Andoain, 1963ko abenduaren 3ean. ....	29
Andoain, 1964ko ilbeltzaren 27an. ....	30
Andoain, 1965eko ilbeltzaren 8an ....	31
Andoain, 1965eko martxoaren 5ean ....	32
Andoain, 1965eko maiatzaren 23an. ....	33
Andoain, 1965eko abuztuak 23 .....	34
Andoain, 1965eko urriak 16 .....	34
Andoain, 1966ko otsailaren 8an .....	35
Andoain, [1967-ko] abuztuaren 21ean .....	37
<b>Mikel Lasari</b> .....	37
Andoain, [1968]ko azaroak 18 .....	37
Andoain, 1968ko abenduak 6 .....	39
Andoain, [1969]ko ilbeltzak 28 .....	39

## ALFABETATZEAREN HASIERAN, RIKARDO

*Elkarrizketa hau, oker ez banago, bil aurretxoan egin nion. Eta bil zenean argitaratzeke zegoen. 1969ko uztailak 27 atera zen Zeruko Argian, aldizkari honek Rikardori eskaini zion omenalditxoaren osagarri gisa.*

*Alfabetatze-kanpainaren lehen urteetako nondik norakoa azaltzen du hemen Rikardok berak.*

JOAN MARI TORREALDAI/RIKARDO ARREGI

### ALFABETATZEA

*Euskaldunok analfabetoak gara. Hau entzutean asko txunditu egingo dira, edo hasarretu (denetik dago-eta). Baina egia butsa da. Euskaldun gehienek ez dakite euskaraz irakurtzen, gutxiago idazten. Analfabetoak, beraz.*

*Maiz aipatu dugu idazlearen eta herriaren arteko lokarri hori gorde beharra dagoela, idazlearen lana bera haintzat hartzea nahi bada. Ikastolarekin batera, alfabetatzea etorri da butsune hori betetzera.*

*Rikardo Arregirekin mintzatu naiz, Rikardo baita kanpaina honen eragile nagusia. Berak bakarrik dakizki, arazo honekin, eman dituen hitzaldiak, egin dituen ibilaldiak. Eta hartu dituen buruausteak.*

– Noiz hasi zen kanpaina hau, Rikardo?

– Proiekttoa, 66koaren ilbeltzean, Jarrai-koek presentatu zuten. Nik presentatu nuen Euskaltzaindian, bostek izenpetua. Aurreneko komisio horretan asko ziren. Baino inork ez zuen kolperik jotzen. Eta ni, handik gutxira, soldadutzara joan nintzen.

– *Eta artean?*

– Begoña Arregi nire arrebak, Mari Karmen Garmendiak, eta Arantxa Saizarbitoriak zuzendu zuten.

– *Jakin al liteke nola basi ziren?*

– Zenbait zuzenbide hartu zituzten: Baserri-Gaztedikoenak, Euskal-folklore eta beste zenbait taldekoenak: eta horiei asmoa agertu, berri emanaz. Ondoren, 67ko udan lehengo kursiloa ospatu genuen Donostian. 50 bat etorri ziren, Berastegi, Andoain, Zumaia, Tolosa, eta Donostia bertatik. Horiei alfabetatze-karneta eman genien, baina ezer gutxi egin dute beren herrietan.

– *Eta gerora ere Donostian bilduz jarraitu al duzue?*

– Bailaraka egitea hobe zela erabaki genuen. Eta horrela, Zestuan (Urola), Bergaran eta Beasainen (Goierrri) egin ditugu besteak.

– *Gaur zertan zaudete, zein etapan?*

– Organizazioa sendotzen. Ez dugu nahi organizazio berri bat izatea, bat gehiago. Uste dugu bailarako antolamenduekin kontatu behar dela. Baina direktzio bat ez badago, ez dago aurrera egiterik.

– *Nola muntatu duzue zuen “organizazio” hori?*

– Hiru zatitan: antolamendu ofiziala (Irigarayk eta biok), maila teknikoa, herriko maila.

– *Maila teknikoa zer da, Rikardo?*

– Izenak dioenez, hartuemanak eta gainontzeko teknika-lanak oro aurrera eramateko ofizina. Prim kalean dugu, jarri berria. Honek diru-problema sortzen du. Hemen gertatzen dena da lanean dabilenak pagatu behar duela.

– *Kanpaina bonetan basieran pentsatutako martxan al zoazte?*

– Mantsoago. Konturatu gara ez dela lana hain erraza eta ez dagoela horren presaka joaterik.

– *Ikus dezagun herri-maila: Euskal Herria, zuen lanerako, herrialdetan banaturik duzue, ezta? Non?*

– Batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. Baina gurea euskalki banaketa da politikakoa baino gehiago.

– *Gaur dauzkazuten problema nagusiak zeintzuk dira.*

– Bi eratakoak: lehendabizi, alfabetatzeak sentidua “masaka” eginaz bakarrik hartzen duela. Eta masaka egiteko propaganda beharra dugu, eta honetarako diru-beharra. Propaganda zabal bat ez bada egiten, lehendik kutsuturikoak bakarrik etorriko dira. Eta beste denak? Eta

bigarren, irakasleak behar ditugu, liberatuak behar ditugu. Zaila da, guk daukagun jendea herriko jendea baita eta bere eguneroko lana bukatu ondoren egin behar baitute beste edozein eginkizun.

– *Gaurkoz nola konpontzen zarete?*

– Beti da apaizgai izandako edo apaizen bat.

– *Hurrengo asmoak?*

– Kursiloak berriro Bergaran, Urolan eta Goierriin egitekotan gaude. Nahi genuke udan bildu responsableak eta organizazioa nahiko finkatua izanen da eta datorren kurtsoko kanpaina nahi genuke eratu.

– *Afabetatzea irakasle batek eman obi du herri bakoitzean. Eta irakasle izateko karnet bat ematen duzue. Zer eskatzen zaio alfabetatzaileari, karnet hori lortu nahi duenari?*

– Reglamendu bat badago: Kursilo bat pasatu beharra. Zer erakusten zaien? Irakatsi behar dituzten irakur-zatiak ententitzen, eta konfrentzi batzuk ere ematen zaizkie. Egia esan, zer erakutsi behar zaien proiektua estudioan dauka batzorde tekniko batek. Aurrerantzean, gramatika, pedagogia, eta munduan alfabetatzea, nahiz giro diferentetan, nola egin den jakitea eskatuko zaie. Gero esamina eta kontrola.

– *Karnet hori betiko al da?*

– Bi urterako. Eta zuzendaritzak berritzen ez badu, ez du balio.

– *Zenbat karnet banatu dituzue orainarte?*

– 200 bat. Baina benetan lan egin, 40 batek egin dute.

– *Alfabetatzaileari eskatzen zaiona ikusiaz, ikus zagus alfabetatuari zer eskatzen diozuten lehen maila bonetan.*

– Kurtsoa bukatzerako, 24 zati horiek irakurtzen jakin dezala, euskalki diferentiek ezagutu ditzala, eta ohitu dadila. Eta behin betirako uxa ditzala prejuizio sikolojikoak oro.

– *Alfabetatze-ikastaro hauek non eman dituzue*

– Gipuzkoan eta Bizkaian. Herri askotan.

– *Fruiturik onenak non?*

– Goierriin. Hemen urte guztian jardun ziren. Eta gero Eibarren. Urolakoak eta Bergara aldekoak erdipurdizka egin dute. Noski, lehenengo pausoak ziren.

– *Egin den toki guztietan lehen maila egin da, ezta?*

– Bai. Bigarrenean pentsatzen gaude. Baina oraingoz lehenengoak gerra asko eman digu. Eta askoz ere zailagoa da bigarrena irakaslearen

aldetik. Irakasleari zer irakatsi? Eta bigarrenarekin hasteko planifikazio kultural oso bat behar dugu. Alfabetatze kanpo beste gauza batzuk eskatzen ditu: textoak..., hemen gaiak erakutsi behar dira zuzenki, ez lehenengoan bezala osagarri legez.

– *Alfabetatze-mota bat bera da guztientzako eta toki guztietarako?*

– Hasieran bai. Baina legegizonengan eta besteengan ere pentsatu beharra dugu.

– *Zenbat herritan egin da?*

– 40-50 izango dira.

– *Ze jende-klase bildu da?*

– Ez dakigu. Dakizunez, numero falta da nagusi euskal alorrean. Horregatik estadistika-sail bat jarri nahi dugu. Tekniko bati eman diogu. Pertsonaren egoera eta euskararena, estudiatu nahi da.

– *Zenbat pasatu dira ikastaro horietatik?*

– Bajutik jota 3.000 bat irakurle. baina ez daukat numeroak jartzerik.

– *Jendeari begira: problemarik nagusiena?*

– Asistentzia, iraupena.

– *Zergatik?*

– Lehen aipatutakoa: propagandarik-eza. Eta gero jendeak behar hau subjektiboki senditzen ez duelako. Objektiboki badago behar hori.

– *Euskaltzaindiaren barruan al dago taldea bera?*

– Bai. Eta hain zuzen Baionako Euskaltzaindiaren azkeneko bilera hautatu ziren lehendakaria eta idazkaria.

– *Ikastaro hau egitea kobratzen al duzue?*

– Hutsa. Bakoitzari karpeta bat ematen zaiolako. Hortik apenas geratzen zaigun dirurik.

Zeruko Argia, 1969, Uztailak 27

## RIKARDOREN GUTUNAK

*Nola bildu Rikardo Arregik idatziriko gutun guztiak?*

*Dauzkagun gutxi hauek lagin baliorik balute, gutunen azterketa hori benetan litzateke inportantea.*

*Bi lagunekin gutun bidez izandako barremanaren berri ematen dugu bemen. Martin Ugalde berrikidearekin eta Mikel Lasa adiskidearekin.*

*Martin Ugalde Caracas-eko desterruan bizi zen, Pedro aitaren laguna zen baina Rikardorentzat ezezaguna pertsonalki. Hamabina gutun bidali zioten elkarri, bizi-biziak. Garbi ikusten da sintonia handi batez ari zirela, elkarri laguntzen, informazioa trukatzeko, mese-deak eskatzen. Hitz batean, benetako barremana.*

*1963tik 1967 urte bitarteko gutunak argitaratzen ditugu orain Martin Ugalderen artxiboan aurkituak.*

*Esan bezala, beste hamabi karta dauzkagu Martin Ugalderenak bemen publikatuko ez ditugunak. Orduan ezagutzen nuen Rikardo eta orain ezagutzen dudana Martin, biak dira gutunetan bene-benetakoak, beren ametsetan, beren asmoetan, beren kezketan, beren ekintzetan. Aiputan dituztenak: kartzela, soldaduska, aldizkarigintza, euskalgintza, politika, ikastola-mugimendua, alfabetatzea. Nola ageri diren? Artikulugintzan Rikardo eskale beti, Martin euskalgintzaren informazio gose-egarri. Rikardo Martini esaten hona etortzeko lan handia egin dezakeela eta. Martin Rikardo animatuz eta txalotuz, gazteen aldeko apostua egiazki eginez.*

*Rikardok Mikel Lasari zuzendutako hiru gutun ere ezagutzera ematen ditugu, 1968-1969koak. Mikel Lasa adinkide eta adiskide zuen eta urte horietan Fribourgon zegoen ikasketak burutzen. Mikelek berak idatzitakoak ez ditugu ezagutzen. Gutun hauetan ere Rikardo peto-petoa aurkitzen dugu, eska eta bultza.*

*Amaitu-aitzin, bakoitzari berea zor zaionez, eskerrona ematea dagokigu guri: gutun hauek eskuratzeko orduan eta argitara emateko izan ditugun erraztasunengatik gure eskerrik beroenak Martin Ugalderi eta Mikel Lasari.*

**MARTIN UGALDERI**

Andoain, 1963ko azaroaren 5ean.

Jaun, agur!

Herritar bezala pozik natorkizu zuri idaztera. Mila aldiz entzun izan dut zure izena nire etxetarren ahotan. Eta azkenengo egun hauetan, nire gaietarako norbaiten bila nebilelarik, entzun nuen zure izena, eta orduan bururatu zitzaidan zuri idaztea. Aurrera jarraitu baino lehen ez legoke gaizki nor naizen adieraztea. Nire aita, zuretzat ezaguna izango da, noski: Pedro Arregi, eta nire osaba Eugenio ere bai.

Hara ba zertara natorren, zuri mesede bat eskatzera. Ez dakit ezagutuko duzun edo ez, baina hemen ateratzen hasia da asteroko bat oso osorik euskaraz: *Zeruko Argia* du izena eta oraingoz bost mila harpidedun dauzka gutxi gora behera eta gehienez zortzi orrikin ateratzen da. Ahalegin handienak egiten ditugu txukun baino txukunago, sendo baino sendoago atera dadin. Neronek ere ahal dudan guztia laguntzen dut, eta horrela laguntzen hasi nintzanetik orain asterokoaren barruan “redactor de política internacional” izatera iritsi naiz. Oraingoz orri bat oso-osorik betetzen dut, baina atzerrian korrespontsalen bila nabil, ahal daitekeen leku guztietatik bertako berri eta iritziak jakin ditzagun. Eta lehengo egunean zure izena aipatu zutenean, zuri laguntza hori eskatzea bururatu zitzaidan. Eta orain, zuri ondo baldin badatorkizu, eta egin baldin badezakezu, nola eta zer egin beharko zenukeen esango dizut.

1. Hilabetero edo hamabostean behin Venezuelatik kronika bat bidali, hango politika, ekonomia, gizartea edo beste edozein gauza interesdun gaiaren gainean. Luzera, honoko orri honek aurpegi batetik bezalakoa gutxi gorabehera eta bi hutsune utziz lerroen artean. Jakina, zuk idatzitakoak onera iristen denbora pasako dute eta onera iritsi eta argitaratzeko ere bai. Hemen lanak igandean bidaltzen ditugu argitaratzeko eta ostiralean azaltzen dira, Iruñaraino bidali behar ditugulako. Horregatik, nire iritzian behinepehin, berri berri-berriak bidaltzea baino hobegoa litzateke, hilabete barruan balio dituztenak bidaltzea.

2. Baita ere edozein “reportaje” egiten baldin baduzu, edozein gaiaren gainean argitaratuko dizugu, oso-osoa. Hauek egitezkerotan nahi duzun luzeran egin ditzaketzu.

3. Bestela berriz, izen handikoekin edukitako “interview” interes handikoak izaten dira, batez ere euskaldunak baldin badira. Ez naiz ondo gogoratzen bainan Venezuelen elekzioak laster direla uste dut.



Horregatik ordurako ere elekzio horietara dihoazen batzuekin hizketaldi batzuek oso gauza handia izango lirake. Uste dut gainera, oraingotan ez dakit, bainan lehenagokoetan Larzabal izeneko almirante bat joan zela elekzioetara, horrekin, oso atsegina litzaiguke.

4. Jakina, guk hemen ez daukagu hori pagatzeko modurik, horregatik eskatzen dizuguna, mesedez eskatzen dizugu. Nahi baldin baduzu eta hartzen ez baldin baduzu *Zeruko Argia* bidaliko dizugu. Gehiago ezin dezakegu.

Beharbada gehiegi eskatu dizut. Barkatu, gure euskara sendotu nahian askotan amets gehiegi egiten ditugu eta horregatik beharbada gehiegi eskatzen dugu. Era guztietara, zerbait bidaltzen baldin baduzu esker beroenekin hartuko dugu.

Andoainen aurtendik ikastola badugu umeentzat, oso-osorik euskarazkoa. Herriko gauza gehiago esango nizkizuke baina osabak ere idazteko asmoa du eta harek egingo duela uste dut.

Aurretik zure mesedeak eskertuz agur esaten dizu zure herritar gazte batek, zure agindura beti prest edukiko duzula esanez.

Andoain, 1963ko abenduaren 3an.

Adiskide on, agur!

Barkatu lehenago ez erantzun izatea, badakizu lanak ez ditu zirrikitu asko uzten guk nahi genituzkeen gaietarako. Mila esker zure erantzunagatik eta zure lanagatik. Argitaratu dugu, eta argitaratuko ditugu zuk bidalitako guztiak.

Hemendik zerbait jakin nahian egongo zarela eta zerbait esango dizut. Gogoratzen naiz osabari Andoingo ikastola dena euskarazkoa zen edo ez galdetzen zeniola. Bai dena euskaraz da. Eta, oraingoz, oso ondo dihoala dirudi. Gipuzkoan gaur egunean leku askotan aurkitzen dira horrelakoak. Donostian asko daude, ez dakit zenbat diren. Irunen, Elgoibarren, Ernanin ere badaude. Elgoibarren bakarrik ikastola ireki baino lehenago, horretarako eskea eginda 180.000 mila bildu ziren, gero buestatu behar ez direnak. Iruñean ere ireki da ikastofa, *Zeruko Argia*-n honezkero irakurriko zenuen berri pozgarri hori. Batxilleratoa ere zerbait euskaraz ematen hasiak dira. Bada Donostian Liceo bat, batxilleratoko lehenengo lau urteak ematen dituena, eta zerbait euskaraz ematen saiatzen dena. Hor dabilta laurogei bat mutil eta neska, ikastolatetik ateratakoak. Goizean, Espainian beharrezko diren ikasgaiak egi-

ten dituzte erdaraz, gero Institutoan esaminatzen baitira. Arratsaldean ordea, euskal literatura, eta euskarari dagozkion beste gaiak ikasten dituzte, euskaraz jakina. Gainera bere jolasetan euskaraz egiten dute. Horri gogor eutsi behar diogu hortik sortu behar direlako biharko gure jakitunak. Elorrioren ere horrelako bat hasi dutela badakit, zerbait gehiago ahal bageneza, zer ez genuke egingo!

Izugarrizko gauza pilak kontatzeko asmotan hasi naiz bainan nire asmoak ezer gutxian geldituko dira, jarraitzeko betarik ez dudalako. Hala ere, ahal dudanean, eta nahiz zatika eta labur-labur izan, hemengoak esaten saiatuko naiz.

Eskekerrak berriro, eta elekzioak erabakitakoa jakiten denean, bateren bati hizketaldia egiten baldin badiozu, hizketaldi hori egiten ari zarenean argazki bat bidali. Badira hemen batzuk, guk hango edo beste nonbaiteko korrespontsala jartzen dugunean, inbentatutako izenak eta gizonak direla uste dutenak. Horregatik ahal izan ezker eta galestia ez baldin bada argazkia bidali.

Agur eta laster arte dizu zure herritar eta adiskide den

Andoain, 1964ko ilbeltzaren 27an.

Agur, aspaldiko!

Zureak zintzo zintzo jasotzen ditut. Behin eta berriro mila esker zure lanagatik, nire izenean eta *Zeruko Argia*-ren izenean. Barkatu lehenago ezin idatzi ahal izatea. Era guztietara, laster dihoa horrantz Joshe Mari Lasarte eta horren bitartez bidaliko ditugu gure esan nahi guztiak.

Oso ondo lehendakariarekin egindako hizketaldia. Hori dela eta *Zeruko Argia* berezi (numero extraordinario) bat atera nahi genuke Venezuelari opatuz. Ez dakit noizko prestatuko dugun, prestatzen baldin badugu ere, baina, era guztietara saiatuko gara ateratzen.

Zure eskabide guztiak betetzen saiatua naiz eta hemendik aurrera zure etxera joango zaizkizu ale guztiak.

Hemen gauzak, gutxi gora behera, beti bezala, irudipenean behinepehin. Iskanbila batzuk, bainan ezer asko ez. Gehiago ere esango nizkizuke baina ezin ditzaket. Andoaingo ikastolak trebe eta indartsu jarraitzen du eta baita ere "Larramendi" izeneko antzerki taldeak. Lehengoek daukaten sasoia oraindik! Atzo Lasarten, urtero bezala izugarrizko "cross" bat izan zen. Bildu zirenak 30.000tik gora ziren.

Ahaztu baino lehen. Kirolaren Erreginaren gainean bidali zenidan periodiko zatia euskaratuta *Zeruko Argia*-n azaldu nahi genuke, Venezuelari eskainiko diogun ale berezian, eragozpenik ba ahal legoke horko periodikoen aldetik?

Behin eta berriro eskerrik beroenak. Eskuminak zuentzat nire etxeko guztien izenean eta lana gainezka daukat eta bukatu beharrean aurkitzen naiz.

Andoain, 1965eko ilbeltzaren 8an

Agur aspaldiko:

Zorionez etxetik zuri erantzuten aurkitzen naiz. Abenduaren hamaazpian irten nintzen espetxetik, nahiz eta irteera hori fiantzarekin eta hamabostean behin herriko juzgadoan presentatu beharra izan eta juzioa egin gabe izan. Bi bekatu ditut nire etsaien esateran: legetik kanpoko elkartasuna, asoziazioa eta behar ez zen zabalkundea. Ikusiko dugu. Itxaropen onak ditut.

Zuk bazenekien arazo hauetaz zer iritzi eta asmo nituen. Oraingo honetan ezer lortzen ez baldin badugu alderdia galdua dago. Nik ezin dezaket gehiago egin. Orain aurkitzen naizen situazio honetan ezin dezaket ezer isilpean egin. Eskaini nuen nire burua edozein gauza egiteko espetxetik atera ondorenean. Prest negoen etxea eta gaintentzakoak uzteko behar ziren lanak egiteko baina ez naute onartu. Beraz alde horretatik nire lanak bukatu dira. Orain beste eginkizun garrantzi handikoak ditut eskuartearen. Gure astekarian zeharo sartu naiz. Gazte talde bat osatu dugu eta luzarora *Temoignage Chrétien* antzeko zerbaitegiteko asmoa dugu. Beraz alde horretatik ere badut nahiko lan. Eta gai hori ikuitzen dugun ezkeror zerbaitegite berritu beharrean aurkitzen naiz zurekin. Lanaren banaketan atzerriko korrespontsalen sekzioa hartu behar izan dut. Beraz eskertuko nizuke hilean behin, lehenago bezala, Venezuelako edo Hegoameriketako politikaz zerbaitegite idatziko bazenu, eta baita ere, ahal izan ezkeror, horko COPEI delakoak ateratzen duten aldizkaria. Ezin baldin baduzu utzi, ez du hainbeste axola eta.

Niretzat espetxean izandako esperientzia oso ona izan da. Bai isilpean lanean ibili naizenean, bai espetxean asko ikasi dut eta gizonago egin naizela uste dut. Gure herriaren etorkizuna ez det hain galdua ikusten. Ba dator gazteria. Pentsatzen duan gazteria. Balioko gazteria. Eta gazteri horrek Aberria askatuko du ez zalantzarik izan. Askatzeko

bidea alderdia edo eta izango da, edo beste zerbait berria, bien artekoa. Seguru asko azkeneko hau. Era guztietara ez bildurrik izan, egu-nero gertuago ikusten dugu eta.

Zuek hor, zure etxekoak eta gainentzekoak ondo izango zaretela uste dut. Gu hemen denak ondo aurkitzen gara. Ohitura denez denak lanean. Euskal Herriaren lanean. Ikastolak aurrera eta ugaritzen dihoaz, ugaritzen eta sakontzen. Gure apaizak nola ari diren lanean sinistu ezin-ekoa da. Igandetan epistola eta ebanjelioa euskaraz irakurtzen dizki-gute gure elizetan. Antzerkietan, ikastoletan, ikasleen artean, esku-tismo, irratian, asterokoan... lana ugari eta gogorra, baino gero eta indartsuago eta gero eta gorago. Isilpean sindikatoak eta politikoak lanean. Euskal Herri guztia lan gogor eta indartsuan aurkitzen da. Ez da harrizkeoa herri bezala gure etorkizuna jokutzen ari gara eta!

Jarraituko nuke baina bukatu beharrean aurkitzen naiz. Mila esker nitaz galdetzeagatik. Eskuminak alderdi horietan dabiltzan andoaindar guztiei (Ahaztu baino lehen, Artola Olajauna-nekuak juizioa otsailaren seian du). Bihotz bihotzez Andoaindik zure herritar eta adiskide zintzo den

Andoain, 1965eko martxoaren 5ean

Agur adiskide!

Barkatu, arren, luze xamarrako ixilaldi au. Nirea da pekatua, gerotik gerora ibili naizelako. Jasotzen ditut zuk bidaltzen dizkidazun aldizka-riak eta probetxua ateratzen diet. Baita ere uste dut honezkero hartuko zenituela Orixek egindako gramatikaren bi zatiak. Laster bidaliko dizut zuk eskatu zenidan bestea. Zuk bidaltzen dizkidazunak buruan dituda-larik lotsa ere ematen dit bidali dizudan liburuaren balioa esatea bai-nan pentsatuko duzu estudianteen poltxikoak beti hutsik ibiltzen direla, horregatik bakarrik esaten dizut, hori bidaltzea zenbat kostatu zaidan, gutxi gora bera berrogei eta bost duro.

Gure auzia luzarorako izango dela uste dugu, udara ondorenerako. Beste gainentzean jakingo dituzu noski hemen dabiltzan zalapartak. Beste gainentzean eman gabiltz ahal duguna egiten, lanean etengabe. Beste gai horretaz berriz memorandum bat egiten ari naiz pentsatzen dudan guztia idatzirik gure goikoei presentatzeko. Bukatzen dudanean kopia bat bidaliko dizut. Memorandum horrekin zer kontsegitzen dudan ikusi ondorenean ikusiko dut zer postura eta joera hartu.

Berriro ere barka egidazu bainan lanpeturik nago eta bukatu beharrean aurkitzen naiz. Besarkada bat horko guztiei eta zure etxekoei hemengo guztien izenean eta nirean ere bai.

Agur eta laister arte zure adiskide, herritar eta lagun den

Andoain, 1965eko maiatzaren 23an.

Agur aspaldiko!

Behabada zure buruari galdetzen hasia egongo zara nire luzaroko ixilpen onetaz. Arrazoi duzu. Barka idazu mesedez. Zuk hainbeste jakin nahi dituzun gaietaz oraingoz ez dut ezer esateko modurik bainan ilun ikusten ditudala bai, ordea.

Hartzen ditut zintzo zuk bidaltzen dizkiguzun aldizkari guztiak. Mila esker. Zuk nahi izan ezkeru hemen argitaratzen diren liburuen berri bidaliko nizuke. Kuliska sorta eta Auñamendikoak hartzen al dituzu? Oraintxe bertan azaldu da Auñamendin Antonio Labayenek egindako liburu bat euskal teatroaren gainean. Hurrengoan erantzun egidazu gai honetaz.

Gure juizioa luze dihoa. Oraintsu jakin dugu fiskalaren eskea. Niri lau urte, lau hilabete eta berrogeita bost mila pezta eskatzen dizkit. Ondo ateratzea espero dut.

Zer berri alderdi horietan? Nahiko iskanbila badira alderdi horietan. Zergatik ez duzu noizean behin kronikatxoren bat, ahal baldin baduzu behinepein? Ondo etorriko litzaiguke hemen horko iritziak eta gertae-rak behar bezala ezagutzea.

Azkeneko eskutitzean esaten zenidanez baduzu Europa aldera etortzeko asmoa. Gogoratzen al zara azkena ikusi ginanean nola euskaldun arteko elkar-izketarako aldizkari batetaz hitzegin zenuen? Ez dakizu horrelako zerbaiten beharra zein handia den guretzat. Uste dut osabak azkena egindako eskutitzean zure etorreraren gainean eta Ereñtunen gainean idatzi zizula. Beraz nik ez dut orain ezer esatekorik.

Esaminak ditugu laster eta oso denbora gutxirekin nabil. Barkatu horregatik eskutitz onen laburpena eta sustantzirik eza. Ahal bezin laster idatziko dizut luze eta sakonago. Bitartean hartu nire besarkadarik beroena.

Andoain, 1965eko abuztuak 23

Agur adiskide:

Aspaldi honetan zurekin zorretan aurkitzen naiz. Badakizu, gerotik gerora dabilenari gertatzen zaiona gertatu zait niri ere.

Jaso nituen zure zorionak ni Euskaltzaindian sartu naizelako. Hilero bere bilereta joaten naiz ahal dudanean behinepehin. Hogeitabat baka-rik biltzen gara gutxi gorabehera. Bestaldetik hiru lau bat gutxienean etortzen dira beti, Nafarroatik ere etortzen da bateren bat beti, gainentzekoak gipuzkoarrak izaten gara. Bizkaitarretatik ez da inor etortzen, Alfontxo Irigoien sekretario ordezkorekin hasarre daudelako. Problema handiak izan ditu orain arte Euskaltzaindiak, euskaltzainak bere artean ezin zirelako konpondu. Lehendakaririk gabe gaude, gehienek Joxe Migel Barandiaran apaiza egiteko asmoa dute eta luzarora behar-bada hori izango da soluziorik onena.

Nik juizioa urrilaren 23an dut eta fiskalak lau urte bost hilabete eta berrogei eta bost mila pezeta eskatzen dizkit. Ez dut uste berriro horre-gatik barrura joan behar izango dudarik.

Osaba Eugenioren izugarritzko zigorra etorri zaio obispoarengandik eta herriko jende zitalagatik. Atauna bidali dute koadjutore bezala. Era-negun jakin genuen berri hori eta oraindik ez dakit zer gertatuko den.

Zure antzerkia irakurri dut eta gure situaziorako oso egokia irudi-tzen zait. Orain Donostiako Jarrai antzerki taldeak du eskuartean ira-kurtzeko eta egin litekeen ikusteko. Bere iritzia jakin bezin laster berri emango dizugu.

Gure gaietan, berriz, Batzarra izango ote den edo susmurrak dabilta. Hilda zeuden itxaropenak horrek piztu erazi dizkit pixka bat. Beharbada zuk nik baino gehiago jakingo duzu.

Hemen jo eta ke lanean ari gara. Ez nuke hau nire kartak gutxi iza-tearen justifikazio bezala hartu nahi baina benetan esaten dizut lehertu egiten gara lanean.

Oraingo hau ere nahiko laburra da baina bukatu beharrean aurki-tzen naiz. Hurrena arte esaten dizu zure herritar, adiskide eta lagun den

Andoain, 1965eko urriak 16

Agur aspaldiko!

Beti bezala barkatu nire atzerapena. Ondo aurkituko zaretela uste dut, gu ere ondo aurkitzen garen bezala. Osaba Eugeniorena zorionez

ondo konpondu da azkenean, Andoainen gelditzen baita. Herri guztia-  
ren izenean komisio bat joan zen obispoarengana izugarrizko firma  
pilarekin eta obispoak esan zuen oraingoz ez zuela aldatuko.

Nik juizioa gaur zortzi dut Madrilen eta ondo ateratzeko asmoa dut.  
Itxaropenak behinepehin baditugu.

Ikastola berria hasia da ehun eta berrogei eta hamar baino neska-  
mutil gehiago dituela. Sozietate berria ere aurrera dihoa eta diruaren  
bilketa poliki poliki aurrera dihoa zorionez. Eragozpenak ere handiak  
ditugu baina aurrera goaz. Ikastolan dabiltzan neska mutil horien  
artean badira kanpotik etorritakoen semeak eta horietxek dira itxarope-  
nik handiena.

*Zeruko Argia*-n idazteari gabonak arte behinepehin utzi egin diot  
arrazoi askorengatik baina seguruenak gabonak ezkerro berriro idazten  
hasiko naiz. Zure kontua ere begiratu dut eta ordaintzen ez zenuelako  
zure txartela puskatua zegoen. Orduan, falta diren hamar aste haueta-  
koa neronek pagatu dut eta abioez bidaliko dizue horrela atseginago  
izango zaizula uste dutelako. Hamar aste hauetakoen balioa hogeï eta  
bi duro da.

Zure antzerkia "Jarrai" taldekoen eskuetan dago eta erabakitzen ari  
dira hemen egin ote litekeen edo, bere iritzia jakin bezin laster emango  
dizut berria.

Juizioaren ondorenean patxara handiagorekin idazteko itxaropena-  
rekin agur eta laster arte esaten dizu zure adiskide eta lagun den

Andoain, 1966ko otsailaren 8an

Aspaldiko!

Barkatu nire aspaldiko isilpena. Batez beste gaur arte ez naiz eseri  
zuri karta egiteko.

*Zeruko Argia* iristen ahal zaizu abioez? Azkenean zure kontuak gar-  
bitu nituen. Hiru urte hauetan ordaindu gabe omen zenituen zure  
ordaindu-beharrak eta zure diru gehienak horretan joan zitzaizkidan.  
Lehengoak ordaintzeaz gainera aurtengo hasiera, abioez bidaliez  
jakina, ere ordaindua dago baina jarraipena ez. Badakizu, abioez  
bidaltzeko ez dago tarifa jakinik, bakoitza bere pisuaren neurrian  
ordaintzen baita eta *Zeruko Argia*-ren ale bakoitzak pisu diferentea du.  
Era guztietara, alearen balioa eta abioez bidaltzea hamazazpi pezetetan

kalkulatzen dute. Era guztietara ez duzu presarik dirua bidaltzeko nik hemen zure ordeaz ordainketak egingo ditut eta.

Zer deritzaizu *Zeruko Argia*? Andoaini eskainitako alea hartuko zenuela uste dut, pozgarri izango zaizula pentsatzen dut. Zuri artikulua bat eskatzeko asmoa banuen baina berandu hasi ginen alea prestatzen eta ez zen betarik gelditzen. Herrian pozik gelditu dira behinepehin. Jakingo duzu Andoainen ehun harpidedun baino gehiago dituela *Zeruko Argia*-k, eta ale horretarako Andoainen bakarrik hogeita eta hamalau mila pezetako anuntzioak aurkitu ditugu.

Azkeneko bolara hauetan burruka handiak izan ditugu *Zeruko Argia*-ren barruan. Bertan idazten dugun gazte guztiak elkarturik gaude eta gure iritzi eta jokaeratan radikalak gara nonbait, izan ere gu bizi garen zirkunstantzietan rebeldeak ez bagara oso osoan gureak egin du. Bainan gure rebeldia eta inkonformismoa ez da euskaltzale jainkozale eta moderaziozale batzuen gustokoa eta bidali egin nahi izan gaituzte. Eta hor izan dira iskanbilak, gu baikara lanik gehiena egiten dugunak eta gu bidali ezkerok... Era guztietara auzi hori konpondu dugula uste dut.

Lanez ittota gabiltza, era askotako lanetan. Euskaltzaleen artean giroa eta pentsaera zeharo diferenteak sortzen hasiak dira zorionez. Ez dugu gaurko munduan konplejurik izan nahi. Politikaren aldetik gauzak ez daude oraindik argi eta kasik geldi xamarrean. Desorientazio nahikoa zoritxarrez.

Zure antzerkia egitea edo ez pentsatzen dabilta batzuk hemen baina eragozpenik handiena baimena ateratzeko zure izenean dago, ez zaituzte nonbait begiko. Era guztietara irakurri dutenei oso eta garai hauetako egokia iruditu zaie.

Aurtengo azaroan soldaduskara joan beharra izango dut, marino bezala eta horrek bi urte alperrik esan nahi du. Ez dago beste erremediorik, ordea.

Zer moduz zabilzate alderdi horietan? Zer moduz zure etxeokak? Hemen denok ondo aurkitzen gara. Eta, ahaztu baino lehenago, eskerrik beroenak ematen dizkizut bidaltzen dizkidazun aldizkari guzti horientatik.

Badakit gauza gehiago jakiteko irrikitzen geldituko zarela baina gaurkoz bukatzera noa. Era guztiera zu laster ikusteko itxaropenik ez dut galdu. Zuk izugarrizko lanak egingo zenituzke hemen.

Besterik gabe besarkada bero batekin agur bero dizu zure lagun eta adiskide zintzo den



## Andoain, [1967-ko] abuztuaren 21ean

Agur!

Beharbada hasarre xamarrean izango zara aspalditxo honetan idatzi ez dizudalako eta arrazoï pixka bat baduzu. Baina, badakizu, soldaduskan nago bi urterako eta zu ere hortik pasea zarelako zer gertatzen den gogoratuko zara, bat beste mundu batean bizi balitz bezala dabilela.

Zuk zintzo zintzo bidaltzen dituzu zuk argitaratutako liburuak eta zuk zuzentzen dituzun aldizkariak. Mila esker. Eta esker hau konkretuan nolabait azaltzeko asmotan bidaltzen dizut *Jakin* aldizkariak argitaratu duen azkeneko alea nik idatzitako artikulu bat baitakar hemen zarata handi xamarra ateratzen ari dena. Gainera beharbada zuri gustatuko litzaizuke aldizkari horrek argitaratzen dituen ale guztiak jasotzea. Orain, gainera, aldizkari hau arinagoa egiteko asmoa dute eta maizago argitaratzekoa. Harpidedun egitea nahi izan ezker hor bidaltzen dizut txartel bat edo bestela niri esan eta hemendik nik egingo nuke orain.

Hemengo gauza gure artean erabat nahastua dago. Nik oraindik ezer asko ez dakit permisoarekin etorri berria naizelako. Soldaduskaren hasiera Ferrolen egin nuen baina gero Guardia Zibilaren informea zirela eta Cadizera bidali ninduten eta han nago orain beste urtebetean.

Orain eskuartean daramadan lanik gogorrena alfabetizazioko karpaina da, euskaldun analfabetoentzat -% 90-. Ez dakizu benetako lan hauek egiteko zer jende gutxi aurkitzen dugun. Solaserako eta berrikerarako gehiegi baina lan isil eta izenik gabekoentzat ezer asko ez.

Zu zer moduz hor? Zure asmoak zertan dira? Noiz elkar ikusiko dugu?

Karta labur baten bitartez bederik ere asko pozten nau berriro zurekin hartu-emanetan jartzeak. Etxeko guztien izenean eskumin beroenak, gaur denak triste baldin bagaude ere Errezil'go amona hil zaigulako.

**MIKEL LASARI**

Andoain, [1968]ko azaroak 18

Aspaldiko!

Hemen aurkitzen nauk paperaren aurrean emandako hitza betetzeko asmoarekin. Ez zekiat hire arreba hor izango duan edo ez. Goraintziak berarekin bidali nizkian. Eztai batzutan egokitu ginuan

Andoainen bertan, eta gaueko ordu biak arte berriketan ibili ginuan hemengo tabernetan. Hirekin bizi baduk esaidak eta bestela bere zuzenbidea bidali.

Erramun ere alde horietan izana duk, noski, eta hemengo berri emango zian. Hor dagoeneko elurretan sartuak izango zaretela uste diat. Hemen ere negua badiagu, baina beste era batekoa. Ni behinepehin erabat tristetzen ari nauk. Tristura alde guztietatik. Zalantzan ari naizenaren konplexua sartu zaidak. Makila beti duk gogorra. Eta esperantza gauzarik gaitzena. Hi beharbada hire lanarekin gauza hauetaz ahaztuko haiz. Eta horregatik triste egongo haizela uste diat. Hemen berriz nonnahi negarra eta tristezia. Problema gaitza gurea. Pertsonala esan nahi diat. Azkarregi zahartuko garela uste diat.

Lamentazioekin ez diagu ezer egiten eta utzi ditzadan alde batera. Krisi honetatik zerbait aterako duk noski eta honen esperantzan bizi beharko diagu. Izan ere, krisia nonnahi agertzen duk, ez duk gurea bakarrik. Hala ere niretzat alde onak izan dizkik. Nire kristau fedea sakondu egin baduk ere, giza mesianismoentzat eszeptikoagoa bihurtu nauk. Behinere baino gehiago uste diat erabat iluna ez bada ere nahiko iluna dela historia, ez dela liburu ireki bat bezala eta gizonaren problema estrukturaz gainera beste zerbait gehiago dela. Jatorrizko bekatua munduko egiarik handienetakoa eta garbietenetakoa deritzaidak.

Zer asmotan habil? Egin al duk delako “panorama de la literatura francesa” hori? *Jakin*-en datorren numeroa “lehen karlistadaz” azalduko duk. *Jakin* gorputz handia hartzen ari duk. Orain bestaldekoek ere parte hartzekotan dituk. Honela jarraitu ezkeroz hemendik urte batzuetara nahiko lana egina izango duk. Hi ere *jakin*laria sentituko haizela uste diat. Izan ere, horixe nahi diagu *Jakin* bihurtu euskal intelektualen aldizkaria. Eta horretara helduko duk.

Lehengo astean Madrilera joateko ninduan Aranguren, Marias, Lain Entralgo, Ruiz Gimenez eta horiekin elkarrizketa batzuetan beste euskaldun batzuekin, haiek inbitatuta baina azkeneko orduan ezezkoa etorri huen eta asmo hutsean gelditu duk.

Betarik ba al duk? “Que sais-je?”-ren tankerako zerbait egin nahi dugula badakian gauza duk. Liburu neutralak izatea komeni da, esposizio hutsa. Ez diate “obra de autor” izan behar. Beste liburuak afusilatuta behar badira, beldurrik gabe egin behar da. 90 orri baino gutxiago ez, 120 baino gehiago ez. Tankera, banaketa eta gainontzekoa “Que sais-je?”-ren gisakoa. Egingo al huke baten bat? Gaurko nobelaz edo non-

baiteko nobelaz? Edo bestela noizbaiteko edo joeraren bateko nobelaz edo? Sei hilabete barru egingo bahu gu kontent izango ginukek.

Zer moduz zihoak ekonomia? Hemen oso petral. Jimenez duk orain irakasle Bilbon eta oso zorrotza gainera. Nahiko komeri izango diat, batez ere nire bizimodu honekin.

Bueno, gaua duk eta lana zain zeukeat. Berriro ere beste tarte bat hartuko diat noski hiri idazteko. Bitartean hire erantzunaren zain gelditzen nauk. Goraintziak hire emazteari. Ezer egiterik edo bidaltzea nahi baduk esan besterik ez duk. Bitartean jaso nire besarkadarik beroena.

Andoain, 1968ko abenduak 6

Agur!

Jaso nian hire lana Pio Baroja eta Epikuroz. Laster azalduko duk datorren *Jakin*-en. Oraingo ortografiaren legalidadean sartu diagu, konforme izango haiz, noski. Lan polita duk, horregatik argitaratzen diagu.

Bazekiat hire arrebari horrantz joateko baimenik ez diotela eman.

Zergatik ez duk egiten liburuskaren bat gaurko nobelaz edo? Ibon-ek hi horretan oso trebea haizela esaten dik. Egunean folio bat egingo bahu hiru hilabeteen lana bukatua izango huke. Eta bestela herorrek hautatu gaia, baina zerbait egin.

Seguru asko Gabonak aldean ez haiz etorriko, horregatik orduan patxada gehiagorekin idazteko beta izanen dudala uste diat. Bitartean jaso nire besarkadarik onena

Andoain, [1969]ko ilbeltzak 28

Agur!

Jaso nian hirea. Amayari eskatutako liburua bidaltzeko esan zioat.

Beti bezala presaka nebilek eta laburpena barkatu beharko didak.

*Jakin*-ek hurrengo numeroaren editoriala “euskal kulturaz” egiteko asmoa dik. *Jakin*-eko ekipoak editorial horretan euskal kulturaren problematika ongi azaltzeko asmoa dik. Dena dela, nahiko eragozpen izango dituk orain Espainia guztira zabaldu duten “estado de excepción” honekin “censura previa” berriro legezkoa duk eta hau erabat gogorra egin duk.

Asko pozten nauk Pariseko berri horiek jakitearekin. Editorial problema hori izugarrizkoa duk. Daudenak edo ez dute balio, edo kolore politikoa (definitua gainera) zeukatek. Saizar-ek nobela bat "Equipo Editorial" izenekoan aterako dik. Baina honek felipetar giroa zeukak.

Esaten duzuen *Jakin*-en numero monografikoa hartzeko bide guztiak irekita dauzkazue. Azkeneko honetan hire "Baroja eta Epikuro" ikusiko huen, noski.

Barka iezeak baina bukatzera niak. Luzeagoa egitezkotan denbora dexente pasako huen. Bien bitartean bihoazkik bi letra hauek. Laster arte beraz, eta besarkada bat.